

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

García de Galdeano eta Bernat Etxepare (Iruña) ikastetxeetako ikasleek NUPeko ikasleen laguntza jasoko dute

Urretxindorra proiektuak unibertsitarioak hainbat kulturatako hurrekin harremanetan jartzen ditu beren garapen soziala eta pertsonala hobetzeko

Lunes, 27 de octubre de 2014

Iruñeko García de Galdeano (gaztelania) eta Bernat Etxepare (euskara) ikastetxe publikoetako Lehen Hezkuntzako ikasleek Nafarroako Unibertsitate Publikoko hamar ikasleren laguntza eta aholkularitza jasoko dute; eredu positibo bat eskainiko diete, beren ikasketaren alde egin eta hura hobetzeko eta baita beren garapen sozial eta pertsonaleko ere.

[Proyecto Ruiseñor /Urretxindorra Proiektu](#)da, eta hura iragan asteburuan abian jarri zen aurkezpen-jardunaldi batean; bertan unibertsitateko ikasleek 2014-2015 ikasturte guztian zehar laguntza emango dieten adin txikikoekin lehen hartu-emana izan zuten. Ekitaldian haien gurasoek, ikastetxeetako ordezkariak eta NUPeko Ikasle eta Enpleguko errektoreorde Paloma Vírsedak parte hartu zuten.

Programa horrekin hainbat kultura eta testuinguru sozialetako haurrak gazte unibertsitarioekin harremanetan jarri nahi dira, eta azken horiek, horrenbestez, haien aholkulari bihurtzen; bi aldeen arteko harremanak esperientzia, trebezia eta pertsona arteko harreman-era berrietarako aukera ematen die, eta horrek mesede egingo die adingabekoei, haien familiei, ikastetxeari, unibertsitateko ikasleei eta Unibertsitateari berari ere.

Gaztelaniaz eta euskaraz

Aholkularitza gaztelaniaz eta euskaraz egingo da, eta unibertsitarioek aurrez prestakuntza jaso dute hurrekin izan daitezkeen hainbat egoerari aurre egiteko eta familiarekin harremana izateko. Aholkularitza-lan horretan aisialdiko eta kulturako ekintzat egingo dira beren denbora librean, astean bizpahiru orduz eta Unibertsitateko Gizarte Ekintzako Unitateatik ikuskatuko diren irizpideak betez.

Programa NUPeko Proiektio Sozial eta Kultureko Errektoreordetzako Gizarte Ekintzako Unitateak sustatu du, eta honako hauen laguntza jaso du: Bizikidetzaren Unesco Katedra, NUPen Aniztasuna eta Herritartasuna eta Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentua; azken erakunde horrekin berriki hitzarmen bat sinatu da.